

ANEXO V

SOLICITUD DE EVALUACIÓN AMBIENTAL ESTRATÉGICA

Introducción y Antecedentes

Datos generales del plan o programa previsto

Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorra 2019-2030 aldirako. Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko 22/2011 Legeak ezartzen du haren egitura eta edukia eta Hondakinen 2008/98/EE Esparru Arteztaraua eta EAeko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana 2020 jarraituz.

Título y Objeto del plan o programa.

Planaren helburua Gipuzkoako Lurralde Historikoak 2019-2030 aldiran hondakin gaietan lortu behar dituen helburuak identifikatzea da, eta helburu horiek betetzeko beharrezkoak diren baliabide teknikoak, administratiboak, legezkoak, ekonomikoak eta giza-baliabideak egituratzea.

I. INTRODUCCIÓN Y ANTECEDENTES

I.1 DATOS GENERALES DEL PLAN O PROGRAMA PREVISTO

➤ Título y Objeto del plan o programa.

Título: Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 Plan Orokorra

Objeto:

Hiri hondakin en etorkizuneko kudeaketaren bitartez, eta Gipuzkoako Lurralde Historiko osoan ahalik eta homogeneoena izango den kostua izanda, kalitatezko zerbitzua bermatzea, eta, aldi berean, ingurumena ahal den hoberen babestea. Hori guztia burutu nahi da, indarrean dagoen araudia eta garapen jasangarriaren printzipioak betetzeko xedez.

Tipo de Trámite:

- Formulación
- Revisión
- Revisión Parcial
- Modificación

Tipo de Instrumento:

- Directrices de Ordenación Territorial (DOT)
- Plan Territorial Sectorial (PTS)
- Plan Territorial Parcial (PTP)
- Plan Sectorial
- Programa Sectorial
- PGOU > 7.000 habitantes
- PGOU < 7.000 habitantes
- Plan de Compatibilización
- Plan de Sectorización

- Plan Parcial
- Plan Especial
- Otros, de carácter estratégico (especificar): _____
- Otros, con determinaciones georeferenciables (especificar): _____

Ámbito de Ordenación:

- CAPV
- Territorio Histórico:
 - Araba
 - Bizkaia
 - Gipuzkoa
- Área Funcional (especificar): _____
- Municipio (especificar, varios si es supramunicipal): _____
- _____
- Otros (especificar): _____
- Submunicipal (especificar):
 - Municipio: _____
 - Ámbito: _____
 - Coordenadas UTM (polígono simplificado envolvente): _____
 - Superficie: _____

Materias incluidas en la planificación: (selección múltiple)

- Agricultura
- Ganadería
- Silvicultura
- Acuicultura
- Pesca
- Energía
- Minería
- Industria
- Transporte
- Gestión de residuos
- Gestión de recursos hídricos
- Ocupación del Dominio Público Hidráulico o Marítimo Terrestre
- Telecomunicaciones
- Turismo
- Ordenación del territorio
- Urbanismo
- Otros:
 - Biodiversidad
 - Cambio Climático
 - Información y participación
 - Otros (especificar): _____

➤ **Justificación de la necesidad y oportunidad del plan o programa.**

GHHKPO 2019-2030 Planaren bitartez, GLHk hondakinen arloko politika berrien aplikazioan sakontzeko aukera du. Politika horiek Hondakinen Esparru Zuzentarauaren bitartez onetsi ziren 2008an, eta estatuko antolamendurako transposizioa "uztailaren 28ko Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko 22/2011 Legearen" bitartez egin zen 2011n. Gainera, Europako Batzordeak ekonomia zirkularrari buruz onartu berri dituen neurriak kontuan hartuko dira.

➤ **Legitimación de competencias del plan o programa.**

Ingurumenaren babes orokorrari buruzko 3/1998 legearen 74. artikularen arabera, hiriko hondakin solidoen eremuan, foru-organoei dagokie lurralde historiko bakoitzean hiri hondakin solidoen kudeaketarako esparru-plangintza garatzea, dagozkien foru-planen bidez.

➤ **Supuesto legal de sometimiento a evaluación ambiental según el presente Decreto.**

• **A. 1, 2, 3, 4, 5.**

- 1.- Directrices de Ordenación del Territorio.
- 2.- Planes Territoriales Parciales.
- 3.- Planes Territoriales Sectoriales.
- 4.- Planes Generales de Ordenación Urbana.
- 5.- Planes de Sectorización.

• **A. 6, 7, 8.**

- 6.- Planes de Compatibilización del planeamiento general, Planes Parciales de ordenación urbana y Planes Especiales de ordenación urbana que puedan tener efectos significativos sobre el medio ambiente.
- 7.- Modificaciones de los planes anteriores que puedan tener efectos significativos sobre el medio ambiente.
- 8.- Otros planes o programas que puedan tener efectos significativos sobre el medio ambiente y que cumplan los siguientes requisitos:
 - a.- Que se elaboren o aprueben por una administración pública.
 - b.- Que su elaboración y aprobación venga exigida por una disposición legal o reglamentaria o por acuerdo del Consejo de Ministros o del Consejo de Gobierno de una comunidad autónoma.
 - c.- Que puedan tener efectos significativos sobre el medio ambiente.
 - d.- Que tengan relación con alguna de las siguientes materias: Agricultura, ganadería, silvicultura, acuicultura, pesca, energía, minería, industria, transporte, gestión de residuos, gestión de recursos hídricos, ocupación de los dominios públicos marítimo terrestre o hidráulico, telecomunicaciones, turismo, ordenación del territorio urbano y rural, o del uso del suelo.

Supuestos que determinan la existencia de efectos significativos sobre el medio ambiente y que el plan o programa cumple:

- Que establezcan el marco para la futura autorización de proyectos legalmente sometidos a evaluación de impacto ambiental.
- Cuando puedan afectar directa o indirectamente de forma apreciable a un espacio de la Red Natura 2000.
Cuando afecten a espacios con algún régimen de protección ambiental derivado de convenios internacionales o disposiciones normativas de carácter general dictadas en aplicación de la legislación básica sobre patrimonio natural y biodiversidad o de la legislación sobre conservación de la naturaleza de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

• **A.9.- Planes y programas que cumplan alguno de los requisitos siguientes, cuando se determine que pueden tener efectos significativos sobre el medio ambiente mediante su estudio caso por caso.**

- Planes y programas que establezcan el uso de zonas de reducido ámbito territorial.
- Modificaciones menores de planes y programas.
- Planes y programas en materias distintas a las señaladas en el apartado 8.d.

➤ **Competencias administrativas concurrentes:**

Órgano Promotor:

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Departamentua

Órgano Sustantivo o responsable de la aprobación definitiva:

Gipuzkoako Batzar Nagusiak

Órgano Ambiental:

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua (Ingurumen Zuzendaritza)

I.2 ANTECEDENTES DEL PLAN O PROGRAMA

➤ **Planificación jerárquicamente superior (en su caso).**

Instrumento	Sometido a EAE	Fecha aprobación definitiva del Plan o Programa	Breve descripción y principales determinaciones en su EAE
	<input checked="" type="checkbox"/> Sí <input type="checkbox"/> No	2015/03/10 Gobernu Kontseilua	Hondakinen sorrera eta kudeaketarekin lotutako helburu estrategikoak ditu, dagozkien jarduketalarroekin: 1.2020an sortzen den hondakinen guztizko kopurua % 10ean murriztea, 2010ekin alderatuta, eta arriskugarritasuna murriztea. 2.Hondakinen gaikako bilketa eta bereizketa handitzea, gutxienez, % 75ean 2020rako. Arazoak sortzen dituzten korronteentzat bilketa-sistemak ezartzea. 3.Berrerabiltzeko, birziklatzeko eta balorizatze prestaketa handitzea, % 60ra arte, 2020rako. 4.Hondakinen ezabapena optimizatzea, lehen mailako hondakinen isurketa ezabatuz, horiek minimizatze tresnak garatuz. 5. Hondakin gaitan informazioa eta gardentasuna hobetzea; hondakinen araudiak zabaltzen dituen aukerak baliatuz, hondakinekin lotutako kudeaketa administratiboa arintzea, eta merkatu berdea eta enplegua sor dadin sustatzea.
	<input type="checkbox"/> Sí <input checked="" type="checkbox"/> No		
	<input type="checkbox"/> Sí <input checked="" type="checkbox"/> No		

I.3 TRAMITACIÓN PREVISTA DEL PLAN O PROGRAMA

➤ **Descripción de las fases previas a la solicitud del Documento de Referencia.**

Acto Administrativo	Fecha		Órgano emisor	Documentación asociada
	Inicio	Final		
Planaren Prestaketa Kontratatzeko Prozedura abiaraztea			Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Dept.	Baldintza Pleguak Idazteko Kontratua
Hasierako Dokumentu Estrategikoa (HDE) eta Planaren Zirriborrea prestatzea	04/2018	05/2018	Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Dept.	Hasierako Dokumentu Estrategikoa eta Planaren Zirriborrea
HDE eta zirriborrea Ingurumen Organoari bidaltzea	05/2018		Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Dept.	Eskabidea eta Hasierako Dokumentu Estrategikoa eta Planaren Zirriborrea

Administrazioari eta interesdunari Kontsultatzea	06/2018	7/2018	Ingurumeneko Zuzendaritza	Kontsulta-Idazkia eta Webgunean Hasierako Dokumentu Estrategikoa eta Planaren Zirriborroa argitaratzea
Irismen Agiria igortzea (Erreferentzia-dokumentua)	07/2018		Ingurumeneko Zuzendaritza	Ebazpena

➤ **Actos administrativos posteriores a la emisión del Documento de Referencia previstos en la tramitación del plan o programa.**

Acto administrativo	Fecha prevista	Órgano emisor	Documentación asociada
GHHKPOren aurretizko bertsioa (Aurreproiektua) eta Ingurumen Azterketa Estrategikoa (IAE) egitea	07-08/2018	Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Dept.	GHHKPOren aurretizko bertsioa (Aurreproiektua) eta Ingurumen Azterketa Estrategikoa (IAE)
GHHKPOren aurretizko bertsioa (Aurreproiektua) eta Ingurumen Azterketa Estrategikoa onestea	08/2018	Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Dept.	Foru Araua
Audientzia eta jendaurrean jarri eta herritarren parte hartzea	08-09-10/2018	Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Dept.	GHHKPOren aurretizko bertsioa (Aurreproiektua) eta Ingurumen Azterketa Estrategikoa (IAE)
Alegazioei erantzun eta parte hartze itzulk.	10/2018	Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Dept.	Alegazioei emandako erantzuna eta parte hartze prozesuaren itzulketa
Ingurumen Organoari Ingurumen Adierazpen Estrategikoa eskatzea	10/2018	Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Dept.	Eskabidea, GHHKPO, IAE, alegazioak eta erantzunak
Ingurumen Adierazpen Estrategikoa igortzea	11/2018	Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Dept.	Ingurumen Adierazpen Estrategikoa
GHHKPO eta IAE, Ing Adizp.Estrategiko eta hainbat txostenetara eguneratzea	11-12/2018	Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Dept.	GHHKPO, IAE eta Ingurumen Adierazpen Estrategikoaren txertatzearen Dokumentua
GHHKPOaren onaspena Diputazioaren Gobernu Kontseilutik	12/2018	Gobernu Kontseilua	Kontseiluaren Akta
Batzar Nagusietara bidaltzea	12/2018	Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Dept.	Eskabidea eta dokumentazio guztia: 1.- GHHKPO 2019-2030. 2.- Ingurumen-alderdiek, Ing. Eb. E. ren, IAEn, kontsulten eta txostenen aintzatespenak nola txertatu diren eta plana hautatzearen arrazoiak laburbiltzen dituen adierazpena. 3.- Jarraipena egiteko neurriak eta teknikoak ez den laburpena.
Batzar Nagusietan Onestea	01-02/2019	Batzar Nagusiak	GHHKPO Onesten duen Foru Araua

➤ Descripción de la participación pública durante la tramitación del plan o programa.

Grado de intervención	Fase de tramitación del plan o programa	Contenido del plan	Plazo de intervención
Kontsulta eta Jendeaurr.	Hasierako onespena baino lehe	Planaren zirriborroa eta HDE	30 egun
Jendeurrean jarri eta audientzia	Hasierako onespena egin ostean	Hasierako onespeneren dokumentua (Aurrproiek. eta IAE)	45 egun
Herritarren Partaidetza Prozesua	Izapidetzaren hasierako faseak (Planaren aurreproiektua eta IAE jendeurrean jarri aurretik eta gero)	Planaren Aurreproiektua eta Ingurumen Azterketa Estrategikoa IAE	Partaidetza saioen iraupena (2 hilabete)

I.4 INSTRUMENTOS DE DESARROLLO POSTERIOR DEL PLAN O PROGRAMA.

Tipo de instrumento	Descripción sintética	Estado de tramitación	Sometimiento a evaluación ambiental (EAE o EIA)
<input checked="" type="checkbox"/> Plan <input type="checkbox"/> Programa <input type="checkbox"/> Proyecto	"Hondakinak kudeatzeko instalazioak" erabilera estaltzen duen AASS/GHHKPO aldaketa	Garatu gabe	Ingurumenean eragin garrantzitsuak izan ditzaketen AASS/GHHKPO aldaketen kasuan.
<input checked="" type="checkbox"/> Plan <input type="checkbox"/> Programa <input type="checkbox"/> Proyecto	"Hondakinak kudeatzeko instalazioak" erabilera estaltzen duen Hiri Antolamendu Plan Berezia	Garatu gabe	Ingurumenean eragin garrantzitsuak izan ditzaketen Hiri Antolamendu Plan Berezien kasuan.
<input type="checkbox"/> Plan <input type="checkbox"/> Programa <input checked="" type="checkbox"/> Proyecto	Hondakinen kudeaketarekin lotutako instalazio bat estaltzen duten proiektu posibleak	Garatu gabe	211/2012 Dekretuak aldatu zuen 3/1998 Legearen I.B. Eranskinaren 4.2. ataleko instalazioen kasuan.
<input checked="" type="checkbox"/> Plan <input type="checkbox"/> Programa <input type="checkbox"/> Proyecto	"Hondakinak kudeatzeko instalazioak" erabilera estaltzen duen Gipuzkoako Azpiegituren SLPren aldaketa	Garatu gabe	Ingurumenean eragin garrantzitsuak izan ditzaketen SLPren aldaketen kasuan.

II. MARCO ADMINISTRATIVO. IDENTIFICACIÓN DE DETERMINACIONES Y OBJETIVOS AMBIENTALES DE REFERENCIA.

II.1 NORMATIVA TERRITORIAL Y AMBIENTAL APLICABLE

Temática	Normativa	Objetivos	Criterios de desarrollo	Indicadores
----------	-----------	-----------	-------------------------	-------------

Hondakinak	22/2011 Legea	Hondakinak prebenitzeko eta kudeatzeko erkidegoko planak egitea.	<ul style="list-style-type: none"> - Autonomia Erkidegoaren lurralde-esparruko hondakin kudeaketaren egoeraren analisi eguneratua. - Hondakinak berrerabiltzea, birziklatzea, balorizatzea eta ezabatzea errazteko neurriak azaltzea. - Berrerabiltzeko, birziklatzeko, balorizatzeko eta ezabatzeko prestaketa eta prebentzio helburuak ezartzea, eta horiek Lege honetan, hondakinei buruzko gainerako arauetan eta bestelako ingurumen arauetan ezarritako helburuak betetzeko egiten duten ekarpenaren estimazioa. - Legearen V. Eranskina. 	
Medio Ambiente	3/98 Legea	Hondakin planak prestatzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Lurralde historiko bakoitzean hiri hondakin solidoen esparru plangintza garatzea, dagozkien foru planen bitartez. - Lurralde historiko bakoitzaren esparruan, udalen jardunak koordinatzea, arlo honetako zerbitzuak modu integrarean eskaintzen dela bermatzeko. - Hondakinak kudeatzeko udalez gaindiko azpiegiturak sustatzea. 	
Kutsadura	16/2002 Legea, 509/2007 ED (Araubidea) eta 5/2013 Legea (16/2002 L aldatzen duena)	Hala dagokionean, Ingurumen Baimen Integratua eskuratzea, instalazioak ingurumenaren gainean dituen eraginen ebaluazioa bermatuz.	Susta daitekeen instalazioaren arabera, aldeko Ingurumen Baimen Integratua eskuratzea.	Susta daitekeen instalazioaren arabera, Ingurumen Baimen Integratuan jasotzen diren baldintzak betetzen direla kontrolatzea.
Ingurumena	7/2012 Legea	Dagokion kasuetan, Udal baimena lortzea. Sailkatutako jardueren baimenezako baldintzak balioestea eta ezartzea bermatzen da (sailkatutako jarduerak dira "ingurumenean, pertsonengan edo haien ondasunengan kaltea eragin dezakenetak, arrisku horiek sortzeko arriskua edo pertsonen	Lege honek aldatzen duen 3/98 Legearen 59 bis. artikulua ezartzen du "3.– Baimenak ofizioz aldatu ahal izango dira (...) ingurumenean, pertsonengan edo haien ondasunengan sor daitekeen eraginarekin lotuta ezartzen diren	Susta daitekeen instalazioaren arabera, udal baimenak ezarritako baldintzak kontrolatzea.

		eragozpenak sortzeko arriskua dutenak", Lege honek ezartzen duen 3/98 Legearen 55. artikulua berriaren arabera).	neurri zuzentzaileak nahikoa ez direla egiaztatzen denean".	
Proiektuek Ingurumenean duten Eragina	21/2013 Legea, 3/98 Legea	Dagokion kasuetan, Ingurumearen gaineko Eraginaren Ebaluazio prozedura aplikatzea, proiektuen ingurumenaren gaineko eragina aztertzen dela bermatuz. Ingurumen ebaluazioa bideratu behar duten printzipioen (21/2013 Legearen 2. art.) artean daude ingurumena babestea eta hobetzea, prebentzio eta erresalbuzko ekintza eta erabakiak hartzeko orduan ingurumen-alderdiak txertatzea).	Susta daitekeen instalazioaren arabera, aldeko IEA eskuratzea.	Susta daitekeen instalazioaren arabera, IEAn jasotzen diren baldintzak betetzen direla kontrolatzea
Plan eta programek ingurumenean duten eragina (IEE)	211/2012 Dekretua, 21/2013, 3/98 Legea	Dagokion kasuetan IEE prozedura aplikatzea, proiektuek ingurumenean duten eragina ebaluatzen dela bermatzeko. 211/2012 Dekretuaren 2. artikuluan ingurumen ebaluazioa gidatu behar duten garapen Printzipioak ezartzen dira, besteak beste: artifizializatuta dauden lurzoruen okupazio intentsiboa lehenestea, balio agrologiko eta natural handiko lurzorua urbaniza ez dadin materialen erabilera jasangarria (...) sustatzea edo habitat eta espezieak, ingurune naturala eta konektibitate ekologikoa zaintzea eta hobetzea.	Lurralde edo hirigintza plangintza aldatzeko beharraren arabera, ingurumen organo eskudunaren aldeko ebazpena eskuratzea.	Lurralde edo hirigintza plangintza aldatzeko beharraren arabera: Ingurumenaren Oroitidazkian ezartzen diren baldintzak betetzen direla kontrolatzea.

II.2 ESTRATEGIAS Y PLANES RELACIONADOS CON EL PLAN O PROGRAMA, POR RANGO SUPERIOR, ÁMBITO ORDENADO O MATERIA PLANIFICADA, INCLUYENDO SUS DOCUMENTOS DE EVALUACIÓN AMBIENTAL.

Instrumentos	Situación Administrativa	Resumen de sus principales determinaciones y de las de sus Evaluaciones Ambientales
Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2002-2016 Plan Orokorra	Diputatuen Kontseiluak 2002ko abenduaren 17an onetsi zuen	Bi helburu nagusirekin egin zen: (1) sortutako hondakin ahalik eta gehien murriztea eta (2) zaborra haren kudeaketa optimizatzeko beharra duen baliabidetzat hartzea. Kudeaketa hierarkian ere oinarritzen da, eta nabarmentzekoa da hainbat udalerritan atez-ateko bilketaren alde egin den apustua, bereizteko eta balorizatzeko ehunekoak/helburuak lortzeko modu bakar gisa.

Hondakinak prebenitzeko eta kudeatzeko EAEko Plana, 2020	Gobernu Kontseiluak 2015eko martxoaren 10ean onetsi zuen	EAEko hondakinak prebenitzeko eta kudeatzeko 2020 planak produkzio prozesu eraginkorrago eta jasangarriagoetarantz eboluzionatzeko konpromisoa hartzen du, produktua sortzen den unetik hasita (ekodiseinua); egun, hainbat arrazoi direla medio, hondakinetan dauden eta berreskuratzen ez diren baliabide material eta energetikoak osorik berreskuratu arte.

II.3 IDENTIFICACIÓN DE OBJETIVOS AMBIENTALES DE REFERENCIA

Instrumentos	Objetivos ambientales identificados	Justificación de su aplicabilidad	Criterios de desarrollo	Indicadores	Límites establecidos o propuestos
EAEko hondakinak prebenitzeko eta kudeatzeko Plana, 2020	<p>(1) 2010ean sortutako hondakin kopuruari dagokionez, guztira sortutako erabateko kopurua % 10 murriztea, eta baita horien arriskugarritasuna ere.</p> <p>(2) Hondakinen bilketa eta gaikako bereizketa % 75eraino igotzea 2020rako, eta arazoak sortzen dituzten korranteentzako bilketa sistemak ezartzea</p> <p>(3) Hondakinak berrerabiltzeko, birziklatzeko eta balorizatzeko prestaketa % 60raino igotzea 2020rako, EAEko arazo nagusiak konponduz.</p> <p>(4) Hondakinen ezabaketa optimizatzea, lehen mailako hondakinen isurketa ezabatuz, horiek minimizatzeko tresnak garatuz, hori geure lurraldetik kanpo egin dadin saihestuz, EAEn baldintza baliokideetan egin daitekeenean eta dauden zabortegeien eragina minimizatuz.</p> <p>(5) Hondakin gaietan informazioa hobetzea eta gardentasuna hobetzea; hondakin gaietan 22/2011 Legeak eta hondakinen araudiak irekitzen dituzten aukeratan oinarrituz,</p>	<p>Hondakinen kudeaketaren hierarkia edozein herri politikaren bizkarrezurra da. Biztanleko hondakin gutxiago sortzen duen gizartearen aurrera egitea.</p>	<p>EAEko planak epe labur, ertain eta luzeko helburu eta konpromisoak ezartzen ditu, baina ekintza zehatzekin; horiek Hondakinen Plana bera bezalako dokumentuak prestatzeaz haratago doaz.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Sortutako hondakinak - Gaikako bilketa eta bereizketa tasak. - Eragina jasaten duten eragileekin abiarazitako bilketa sistemak. - Materialaren balorizazioaren % - Birzikla daitezkeen korronteak berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestaketaren % - Hondakinen gaikako bilketa eta bereizketaren % - Birziklapenaren % - Balorizazio energetikoaren % - Zabortegeietan isuritakoaren % - Aurretik tratatu gabe isuritako hondakinen % - Hondakinen kudeaketarekin lotutako enpleguaren hazkundea. - Inbentarioen erabilgarritasuna balioestea, 2016rako 10eko eskalatik 7tik 	<p>(1) 2010ean sortutako hondakin kopuruari dagokionez, guztira sortutako erabateko kopurua % 10 murriztea, eta baita horien arriskugarritasuna ere.</p> <p>(2) Hondakinen bilketa eta gaikako bereizketa % 75eraino igotzea 2020rako, eta arazoak sortzen dituzten korranteentzako bilketa sistemak ezartzea</p> <p>(3) Hondakinak berrerabiltzeko, birziklatzeko eta balorizatzeko prestaketa % 60raino igotzea 2020rako, EAEko arazo nagusiak konponduz.</p>

	hondakin gaietan kudeaketa administratiboa erraztea eta arintzea, eta merkatu berdea eta enpleguaren sorrera sustatzea, Plana garatzearen eta ezartzearen bitartez.			gorako plangintzaren informazio eta garapen betebeharren erantzuna emateko.	

III. SÍNTESIS DEL PLAN O PROGRAMA OBJETO DE EVALUACIÓN

III.1 ÁMBITO TERRITORIAL DE ORDENACIÓN Y CARACTERÍSTICAS GENERALES

Descripción:

Planaren lurralde-esparrua GLH osoa da, eskualde edo udalen arteko bereizketarik egin gabe. "EAEko ingurumenaren egoera" dokumentuan eta erreferentzia gisa erabili diren gainerako ingurumen gaietako dokumentuetan (Garapen Jasangarrirako EAEko Ingurumen Estrategia eta Ingurumen Esparru Plana), lurraldean gertatzen diren presiorik handienak lurzoruaren eta uraren kontsumoaren gainean, hondakinen sorreran, airearen kalitatean, hiri-inguruetako ingurumenean, ur kontinentaletan eta itsasoko eta kostaldeko ingurumenean gertatzen direla adierazten dute. Hondakinei dagokionez, horien kudeaketa da gizarte modernoek duten ingurumen-arazorik larrienetarik bat, gizarte aurreratuenek eta industrializatuenek bereziki, errenta-maila altuen eta sortutako hondakinen bolumenaren artean harreman estua baitago. Hondakinen kudeaketa oker batetik eratortzen dira baliabide hartzaile gehienek gainerako eraginak: lurzoruak, ura, airea, osasun publikoa, eta abar. GHHKPOren zirriborroak egun lurraldean hondakinen arloan dagoen egoeraren analisiari eta diagnostikoari heltzen die, arazo handienak sortzen dituzten korronteak identifikatuz, kudeatutako hondakin korronte bakoitzarekin lotutako irtenbideak identifikatuz eta beharrezko azpiegituren sarea identifikatuz. Analisi horretan nabarmentzen da GLHk egun hiri hondakinak biltzeko eta tratatzeko sare zabala duela, hondakinak masan tratatzeko instalazioen bat izateko beharra argi eta garbi antzematen den arren. Egun, erroka instalatutako birziklatzeko azpiegituren ustiapena maximizatzea da (eta berriak sortzea), balorizazioaren eta ezabatzearen indizeen arteko oreka apurtzeko, eta balorizazioaren alde egiteko.

III.2 SÍNTESIS DE OBJETIVOS Y CRITERIOS GENERALES PROPUESTOS PARA LA PLANIFICACIÓN

➤ **Objetivos Sustantivos** del Plan y Criterios de desarrollo

Objetivo: (1) 2010ean sortutako hondakin kopuruari dagokionez, guztira sortutako erabateko kopurua % 10 murriztea, eta baita horien arriskugarritasuna ere

Criterios de desarrollo: Prebenitzeko eta berrerabiltzeko programa

Objetivo: (2) Biohondakinen bilketa eta gaikako bereizketa % 60raino igotzea (2020)

Criterios de desarrollo: Gaikako bilketarako, berrerabiltzeko prestatzeko eta birziklatzeko programa, konpostatzea/biometanizatzea barne hartzen dituen

Objetivo: (3) Hondakinen % 60 berrerabilpenerako, birziklapenerako eta balorizatorako prestatzea 2020rako, bide batez EAEn hondakinen arloan dauden arazo nagusiei irtenbidea eman

Criterios de desarrollo: Gaikako bilketarako, berrerabiltzeko prestatzeko eta birziklatzeko programa, konpostatzea/biometanizatzea barne hartzen dituen

Objetivo: (4) EEH hondakinen bilketa eta gaikako bereizketa % 75eraino igotzea (2020)

Criterios de desarrollo:	Gaikako bilketarako, berrerabiltzeko prestatzeko eta birziklatzeko programa, konpostatzea/biometanizatzea barne hartzen dituena
Objetivo:	(5) Biohondakinak berrerabiltzeko prestaketa, birziklapena eta balorizazioa % 50eraino igotzea 2020
Criterios de desarrollo:	Gaikako bilketarako, berrerabiltzeko prestatzeko eta birziklatzeko programa, konpostatzea/biometanizatzea barne hartzen dituena
Objetivo:	(6) Papera, zura, plastikoa, beira, metalak berrerabiltzeko prestaketa, birziklapena eta balorizazioa % 50eraino igotzea (2020)
Criterios de desarrollo:	Gaikako bilketarako, berrerabiltzeko prestatzeko eta birziklatzeko programa, konpostatzea/biometanizatzea barne hartzen dituena
Objetivo:	(7) EEH hondakinak berrerabiltzeko prestaketa, birziklapena eta balorizazioa % 75eraino igotzea
Criterios de desarrollo:	Gaikako bilketarako, berrerabiltzeko prestatzeko eta birziklatzeko programa, konpostatzea/biometanizatzea barne hartzen dituena
Objetivo:	(8) Hondakinen ezabaketa optimizatzea, lehen mailako hondakinen isurketa ezabatuz, horiek minimizatzen diren tresnak garatuz (2020)
Criterios de desarrollo:	Ezabapena optimizatzeari buruzko programa
Objetivo:	(9) Hondakin gaietan informazioa hobetzea eta gardentasuna hobetzea; 22/2011 Legeak eta hondakinen araudiak irekitzen dituzten aukeratan oinarrituz, hondakin gaietan kudeaketa administratiboa erraztea eta arintzea, eta merkatu berdea eta enpleguaren sorrera sustatzea, Plana garatzearen eta ezartzearen bitartez (2020)
Criterios de desarrollo:	Prebenitzeko eta berrerabiltzeko programa (Gipuzkoako Prebentzioaren Behatokia)
Objetivo:	(10) Hiri hondakinen % 65 birziklatzea (2030)
Criterios de desarrollo:	Gaikako bilketarako, berrerabiltzeko prestatzeko eta birziklatzeko programa, konpostatzea/biometanizatzea barne hartzen dituena
Objetivo:	(11) Ontzien hondakinen % 75 birziklatzea (2030)
Criterios de desarrollo:	Gaikako bilketarako, berrerabiltzeko prestatzeko eta birziklatzeko programa, konpostatzea/biometanizatzea barne hartzen dituena
Objetivo:	Zabortegetan ezabaten diren hondakinak sortzen diren hondakin guztien %10 mugatzea (2030)
Criterios de desarrollo:	Ezabatzea optimizatzeari buruzko programa

➤ **Objetivos Ambientales** del Plan y Criterios de desarrollo

Criterios de desarrollo:	Planaren programen xedea zehaztutako ingurumen-helburuak betetzea da, eta garatzeko irizpideak dituzte.
Objetivo:	Aurretik aipatutako 12 helburu estrategikoetatik denak, 9.a izan ezik, ingurumenarekin erabat lotuta daude
Criterios de desarrollo:	
Objetivo:	

III.3 DESCRIPCIÓN DE LAS ALTERNATIVAS DE PLANIFICACIÓN CONSIDERADAS

➤ Identificación y Justificación de los Criterios Técnicos utilizados para la validación de las alternativas

Criterio Técnico, Justificación:

Hierarkia-printzipioa betetzea:
Planaren indarraldian zehar hondakinen prebentzioan eta kudeaketan aurrera egiteko, eta adierazitako helburuak betetzeko, modu bakar gisa jarduketa programatan aldi berean ekitea aurreikusten bada ere, ekintzak definitzeko orduan, une oro, aintzat hartu da modu berezian Hierarkia-printzipioa.
Hori eginez, programetako ekintzak hurrenez hurren lehenesten dira, prebentzioari garrantzia handiagoa emanez (programa independente bat bezala bihurtuz). Beraz, 5 programa osatzen dira.

Criterio Técnico, Justificación:

Lehenesteko irizpideak: jarduketa programa bakoitzaren baitan, ekintzen lehentasuna ezartzen da, jarraian aipatzen diren irizpideak erabiliz, izan dezaketen eragina aintzat hartuz eta hierarkia-printzipioa baliatuz:
-Tamaina: kopuru handiagotan sortzen diren hondakin korronteei lehentasuna ematen zaie.
-Arriskugarritasuna: hondakin korronterik arrisku-suenei ematen zaie lehentasuna.
-Dagokion programa hobetzeko ahalemena (prebentzioa, birziklapena, balorizazioa)
-Merkatu-aukerak sortzeko ahaleme

Criterio Técnico, Justificación:

Azpiegitura berriak kokatzeko, diseinatzeko eta horien tamaina ezartzeko irizpideak:
Horrelako azpiegiturak ingurumenari dagokionez sentiberak diren eremuetan ez kokatzeko baldintzak, eremurik gomendagarrienetan kokatzeko baldintzak, instalazioen garapen teknikoak eskuragarri dauden teknikarik onenak erabiltzeko baldintzak, prozesu teknologikoa HLKLren arabera egokitzekoak, eta egun dauden eta etorkizunean egongo diren legezko eskakizun eta baldintzak aintzat hartzen dituen denbora-garapena ezar

Criterio Técnico, Justificación:

➤ Caracterización ambiental de las alternativas viables propuestas.

Alternativa Denominación:

0 (ZERO) ALTERNATIBA EDO ESKU EZ HARTZEA (aDren jarraipena)

Congruencia, proporcionalidad y contribución:

Ez du ahalbidetzen GHHKPO 2019-2030ean ezarritako erreferentziatzeko ingurumen helburuak betetzea, ez delako egiten GLHan hondakinen plangintza koherente eta koordinatu bat ahalbidetzen, ezta jarduteko lehentasunen identifikatzea eta kudeaketan hierarkia-printzipioa modu zorrotz eta ikuskatuan aplikatzea ere. Ez litzateke posible HEA eta HLKLren helburuak betetzea, eta baztertu egiten da 1. irizpide teknikoan (hierarkia-printzipioa betetzea) oinarrituz.

Alternativa Denominación:

Ontzientzako alternatibak: (1) Azpiegitura berriak ez eraikitzea eta egun daudenak ez handitzea. (2) Egun dauden azpiegiturak handitzea (3) Azpiegitura berria(k) eraikitzea

Congruencia, proporcionalidad y contribución:

2. eta 3. alternatibak, eta horien konbinazio batek, plana egiteko orduan egiten den azterlanaren irtenbidea izan daitezke.

Alternativa Denominación:

Biohondakinenzako alternatibak (1) Dauden plantak handitzea (biometanizatzeakoa eta konpostatzeakoa) (2) Biometanizatzeakoa planta berria eraikitzea, (3) konpostatzeakoa planta berria eraikitzea.

Congruencia, proporcionalidad y contribución:

Faktore geografikoak (erabiltzaile eta sortzaileena) aintzat hartuko dira, hau da planta zentralizatuak aukeratu edo sakabatutako planta txikiagoak.

Alternativa Denominación:

Berrerabil daitezkeen hondakinen alternatibak: (1) Ekocenter berria eraikitzea. (2) Ekocenter berriak eta berrerabiltzeko prestaketarako planta zentralizatu bat eraikitzea. (3) Ekocenter berriak eta berrerabiltzeko plant.

Congruencia, proporcionalidad y contribución:

Mankomunitateen parte-hartzerako programak eta hura ezartzeko konpromiso-mailak eragingo dute ereduak alternatiba baten edo bestearen alde egitea.

Alternativa Denominación:

Congruencia, proporcionalidad y contribución:

Alternativa Denominación:

Congruencia, proporcionalidad y contribución:

Alternativa Denominación:

Congruencia, proporcionalidad y contribución:

III.4 PRINCIPALES DETERMINACIONES DEL PLAN O PROGRAMA.

Denominación	Breve descripción
Prebentzio eta Berrerabiltzeko Programa	2010ean sortutako hondakin kopuruari dagokionez, guztira sortutako erabateko kopurua 2020rako % 10 murrizteko, eta horien arriskugarritasuna murrizteko helburu estrategikoa betzearekin lotutakoa. Berrerabiltzerako: Araudiaren helmugak, sistema eta inbertsio berriak jartzea
Gaikako bilterako eta birziklatzeko programa (konp eta bio)	Hondakinen gaikako bilketa-tasa handitzera eta inpropio kopurua murriztera bideratuta. Hondakin mota berrien gaikoako bilketa hedatzeko beharrea sakonduko du ere.
Bestelako balorizazioen gaineko Programa	Hondakinen hierarkia jarraituz eta horien bero-ahalmena aintzat hartuz, balorizazio energetikoa ez den beste aukerarik ez duten hondakinak zein diren identifikatzea du helburu.
Ezabatzea optimizatzeari buruzko programa	Lehenengo hondakinak ezta baloriza daitekeen bigarrenengo hondakinak ez dira botako.

--	--

IV. CARACTERIZACIÓN AMBIENTAL DEL ÁMBITO TERRITORIAL POTENCIALMENTE AFECTADO

IV.1 FUENTES DE INFORMACIÓN Y DIFICULTADES ENCONTRADAS

Planaren aplikazioaren lurralde-esparrua GLH osoa denez, zaila da esparru horretako alderdien deskribapenaren laburpena egitea: geologia, baliabide hidrologikoak, fauna...

Planaren aplikazio-eskala aintzat hartuta, zera erabaki da: 1) ingurumenari eta paisaiari dagokionez sentiberagoak diren eremuak identifikatzea, horietan hondakinekin lotutako instalazio berriak eraikitzea saihesteko helburuarekin, eta 2) Instalazio horiek ezartzeko lehenetsi behar diren kokalekuak identifikatzea, irizpide orokorrak eta espezifikoak betez.

Ingurumenari eta paisaiari dagokionez sentiberatasun-maila handiagoa duten eremuak definitzeko, Eusko Jaurlaritzaren Naturari buruzko Informazio Sistemari eskura dagoen informazioa kontsultatu da (www.ingurumena.net eta www.geo.euskadi.net).

IV.2 DESCRIPCIÓN AMBIENTAL DEL ÁMBITO TERRITORIAL POTENCIALMENTE AFECTADO

Ámbito de análisis

Planak lurralderako jarduketarik aurreikusten ez duenez, lurralde mailan instalazio horiek non ekidin/bultzatu behar diren identifikatzeko ahalegina egin da, izan ere, Plana hondakinak tratatzeko edo ezabatzeke etorkizunean sor daitezkeen instalazioen plangintza-esparrua baita.

Laburbilduz, ingurumen-balio txikiagoko eremuak hautatzearen alde egin beharko litzateke, horiek sor daitezkeen instalazio berriak hartzeko ahalmen handiagoa diren eremuak direla ulertuz. Hori horrela, eta Hondakin Planaren zehaztapenek eta haren lan-eskalak eremu horiek berriaz identifikatzea ahalbidetzen ez dutenez (indarrean dagoen legerian eta Planean bertan ezarritako helburuak betetzeko sor daitezkeen beharen arabera izango lirateke), zenbait irizpide zehaztu dira, etorkizunean susta daitezkeen kudeaketa instalazioak diseinatzeari eta kokatzeari dagokionez, horiek ingurumenean izan dezaketen eragina saihesteko/minimizatzeko. Irizpide horiek hauek dira, laburrean:

1) ingurumenari dagokionez sentiberatasun-maila handia duten eremuetan instalazioak ez kokatzeko helburua dutenak (naturari dagokionez, interesa duten eta katalogatuta dauden eremuak, landaredi naturaleko eremuak, uholeak izan ditzaketen eremuak, eta abar), eta instalazioak aldatutako edo artifizializatutako eremuetan (HUAetatik gertu edo industria-isurketak onartzen dituzten bilgailuetatik gertu) koka daitezkeen sustatzeko helburua dutenak.

2) Instalazioen arabera diseinu irizpideak (eskuragarri dauden teknikarik onenak baliatzea, adibidez), tamainarekin lotutako irizpideak (egungo eskaria eta aurreikus daitezkeen eskaria aintzat hartzea, adibidez), edo berriazko irizpideak.

Medio Atmosférico. Calidad del Aire y Ruido

GHHKPO 2019tik eratorritako azpiegiturek izan ditzaketen eraginak kontrolatzeaz gainera, eta airearen kalitatean izan dezaketen edozein eragin garrantzitsu saihesteaz gainera, Plan horren baitan, hondakinak kudeatzeko azpiegitura eta tresna guztien eragina kontrolatzeko neurriak sustatuko dira, GHHKPO 2019 aplikatzeak Gipuzkoako lurraldeko airearen kalitatean eragin negatiborik izan ez dezan.

Geología, geomorfología y suelos

Alteratutako edo artifizializatutako lurzoruak lehenetsiko dira

Medio Hidrológico y Superficial y Subterráneo

Gipuzkoako Hondakin Plan berriak ez du eraginik eremu hidrografikoaren gainean, eta ezta Lurralde Historikoko uren plangintzaren gainean edo ingurumen-arlo horren kudeaketan aurreikusten den aurrerabide onuragarrian ere

Vegetación

Komunitate-interesa duten habitatak dituzten eremuak saihestuko dira, lehentasunezko habitatak eta/edo bertako basoak dituztenak, bereziki.

Fauna

Interesa duten espezieak dituzten, edo horien igarobide diren eremuak saihestuko dira.

Áreas Naturales de Especial Relevancia

Eremu hauetan kokatzea saihestuko da: Naturagune Babestuetan (16/1994 Legea betez), Hezeguneetan (Hezeguneen SLPren II. Multzokoak eta Ramsar Hezeguneak), Txingudi, Urdaibai (RBU), EAeko Korridore Ekologikoen Sarean, LAGeko Interes Naturalistikoa duten Eremuetan eta EAeko Naturagune Garrantzitsuen Katalogo irekian dauden eremuetan.

Medio socioeconómico

Kokaleku posibleak hautatzeko, hirigintza- eta lurralde-plangintzan indarrean dauden xedapenak aintzat hartu beharko dira. Eta baita instalazio horiek giza osasunaren gainean izango dituzten eraginak ere.

IV.3 VALORACIÓN AMBIENTAL DEL LOS ÁMBITOS TERRITORIALES IMPLICADOS. DIAGNÓSTICO Y UNIDADES AMBIENTALES HOMOGÉNEAS.

➤ Síntesis de caracterización ambiental y diagnóstico del ámbito territorial implicado e identificación de los aspectos y problemas ambientales más relevantes.

Caracterización ambiental

EAE osoko (eta, horretaz, GLHkoa) ingurumenaren diagnostikoa aldiari behin egiten da, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika sailak argitaratzen duen EAeko ingurumenaren egoeraren dokumentuetan. Argitaratu den azken dokumentua (EAeko INGURUMENAREN EGOERA 2009) III Ingurumen Esparru Programa (2011-2014) definitzeko egin zen diagnostikoa da. Aipatzekoa da EAeko ingurumenaren egoera eta bestelako erreferentziako dokumentuetan (GIEIE, Ingurumen Esparru Plana) behin eta berriz aipatzen dela lurraldean gertatzen diren presiorik handienak lurzorua eta uraren kontsumoaren gainean, hondakinen sorreran, airearen kalitatean, hiri-inguruetakoko ingurumenean, ur kontinentaletan eta itsasoko eta kostaldeko ingurumenean gertatzen direla. GHHKPO 2019-2030aren aplikazio-esparrua diren hondakinei dagokienez, aipatzekoa da enpresei zein ingurumen organoei aplikatu dakiekeen lege-esparrua nabarmen hazi dela azken hamarkadatan, funtsean, Europako Arteztarauen transposizioaren ondorioz. Eragile bakoitza bete behar berrietara egokitu behar denez, EAeko ingurumenaren egoera nabarmen hobetu da.

➤ Definición y valoración de las unidades ambientales homogéneas

Unidad nº: 1

Denominación: Ingurumenari eta paisaiari dagokionez sentiberak diren eremuak

Descripción:

Lurraldeko ingurumen- eta paisaia-unitate homogeneoen definizioa dagokigun proiektu edo planean aurreikusitako erabileren harrera ahalmenean oinarritu behar da. GHHKPO 2019 berriak ez du jardun berririk aurreikusten lurraldean, baina, ingurumenari dagokionez, oso sentiberak izateagatik, hondakinen kudeaketarekin lotutako instalazioak zein gunetan saihestu behar diren zehazten du.

Valoración y capacidad de acogida:

Natura eta paisaiari dagokionez, balio handia duten eremuak dira eta, Hondakinen Planean adierazitako baldintzen arabera, saihestu egin behar da kudeaketa instalazioak bertan kokatzea.

Unidad nº: 2

Denominación: Hondakinak kudeatzeko instalazioak hartzeko eremurik egokienak

Descripción:

Dagoeneko artifizializatuta dauden lurzorua dira: zabortege ohiak, aldatutako gunek, eta abar. Azken

batean, balio naturalistiko txikiko eremuak dira, instalazio berri posibleak, beharrezkoak izango balira, hartzeko ahalmen handiagoa dutenak. Beraz, lehentasuna emango zaio azpiegiturak eremu horietan kokatzeari

Valoración y capacidad de acogida:

Eremu horiek natura- eta paisaia-balio txikia dutenez, hondakinak kudeatzeko instalazioak hartzeko ahalmen handia dute. Hori horrela, azpiegitura berriak bertan kokatzea lehenetsi behar da. Eremu horien definizioa plangintza globalean zehazten ez diren hainbat faktoreren araberakoa da. Izatekotan ere, Hondakinak Planetik ezartzen dira horiek hautatzeko irizpide orokor eta espezifikoak

➤ Valoración específica de la potencial afección del plan o programa a la Red Natura 2000.

GHHKPO 2019-2030 hondakinak balorizatzeko edo ezabatzeko instalazio berrien garapen posibleen plangintzarako esparrua da. Instalazio horiek Natura 2000 Sarean izan dezaketen eraginari dagokionez, jarraian aipatzenak direnak arretaz egin behar dira:

- Berriaz adierazten da azpiegitura berriak Natura 2000 guneetan kokatzea saihestu behar dela (kokatzeko irizpideak, azpiegiturak ezartzeko ekidin behar diren eremuak).

- Hondakinak kudeatzeko instalazioak kokatzeko lehenetsi beharreko zenbait irizpide definitzen dira, ingurumenean, uretan, atmosferan, eta abarretan izan ditzaketen eraginak saihesteko/minimizatzeko helburuarekin.

Aipatutako horiek arretaz egiten badira, GLHko Natura 2000 guneetan eragin nabarmenik sortzen ez dela bermatzen da eta, horretaz, 42/2007 Legeak (45.2. art.) eta 92/43/EE Arteztarauak (6.2. art.) ezarritako prebentzio-erregimena betetzen da.